


ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

182n. Zenbakia Otsaila/Zezeilla
1994



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



**URRESTARAZU TA LANDAZABAL'DAR ANDONI
GASTEIZ'EN IL ZAN 1993-11-21'EAN**

- EUSKALTZALE ZINTZOA
- KRISTIÑAU GOGOTSUA
- IDAZLE TREBEA
- BENETAKO ABERTZALEA

TAKET, MUNGIALDEKO BERTSOLARIA

Mungialdea ta Taket

Mungialdea ez da sekula izan bertsoetarako lur oparoa, baiña alan be aitatu-bearrekoa da Juan Ormaetxe edo, kaleko jenteak ezagutzen eban lez, "Taket".

1896n. urtean jaio zan Meñaka n, Sollube mendiaren barrenean dagoan base-ri baten. Orregaitik izenpetzen ebazan berak idatzitako bertso-papelak "SOLLUBEPE" ez-izenagaz.

Taket ez-izena

Ostera. Taket ez-izena egurrezko anka bat eukolako etorkion.

Gaztea zanean zalditik jausi eta anka bat kendu-bearra izan eban, alde bate-tik gaur-egungo teknikak ez egozalako eta beste alde batetik, oso txarto geratu jakonelako.

Eskolabakoa

Bera eskolabako bertsolaria zan, bakarrik ikasitakoa.

Etorri aundikoa zan baiña tamalez aizeak eroan ditu bere bertso-rik geiena k, garai aretako bere lagunak buruz ikasitako batzuk izan ezik.

Txapelketan

1964n. urteko uztailaren 19 an Mungia n, Bizkai ko bertsolari-txapelketako kanporaketa batjokatu zan.

Zortzi bertsolari aritu ziran: Jon Enbeita muxikarra, garai aretan oso gaztea, Juan Ormaetxe "Taket" mungiarra, Juan Jose Agirre gernikarra, Juan Olarra erri-goitiarra, Manuel Basabe lumoarra, Pedro Kastrejana loivarra, Pedro Ortuzar muxikarra, Iturri anaetariko bat eta Balendin Enbeita, garai aretako bertsolari aundia ta txapelketa aretan txapeldun izan zana.

Lenengoz

Taket ek lenengo aldiz artzen eban parte txapelketa baten eta bere eginbearra onako au izan zan:

- Agurra
- Puntuka. lau oiñak emonda bertsoak osotu.
- Ofizioka Jon Enbeita gaz.

Basab gaz

Gerokarrean Taket ek Manuel Basabe lumoarragaz egin bear izan eban desenpatea eta gai onetan Taket aurrera pasa zan.

Bigarren atalean Taket eta Iturri ofizioka ipiñi ebazan Alfontso Irigoien gai-jartzailleak.

Ori bukatu ostean Taket ek bere buruari bertso bat ipiñi eutson, gaia San Pedro ren aurrean dagoan il-barri bat zala.

Taket eta Iturri

Azken agurraren ostean Iturri geratu zan Taket en aurretik. Ortik aurrera Taket ek ez eban txapelketa geiagotan parterik artuko, alde batetik bertso txapelketa baten parte artzea arriskutsua zalako, garai aretan galazota egoan-eta. Beste alde batetik bere adiña naikoa urtetsua zalako.

Zelako bertsolaria zan

Taket ek beti erabilten eban doñu bat bertsoetarako, zortziko nagusia zan eta orretan abesten chart, azken-puntuak luzatzen ebazala.

Taket oso zarretan asi zan plazarik plaza bertsoetan, baiña gaztea zala be, Eusko Alderdi Jeltzalearekin bat, mitiñak eta bertsoak botakoa zan. Ori zala-ta larri ibilli zan urte batzutan eta kartzelatik be pasau bear izan eban.

Eritxiak

Jon Lopategi k auxe esan eban bein Taket'egaitik: "Taket naikoa bertsolari

ona zan baiña ber aren moduko bat euki ba eban ondoan, mailla obeago bat lortu-ko eban".

Bera ezagutu eben guztiak, edo geienak beintzat, oso pertsonalidate lizkar-tsu eta garratza eukola esaten eben. Esaterako bertsoetan asi ezker, bere ondoan eukazan bertsolariak faltatzen asten zan eta ori zala-ta bertsolari askok ez eben nai beragaz abesterik.

Tabernan bertsoetan

Bein Mungia ko Sollube tabernan bertsoetan asi ziran Taket eta Iturri.

Iturri k tamaiñu txikia eukon eta ori zala-ta beragaz sartzen asi zan Taket.

Iturri k bere burua defenditzeko asmoz, bera egurrezko aldamiño baten gai-ñean eutaten zala esan eutson. Taket ek egurrezko anka bat eukolako. Ordutik aurrera denpora askoan egon zan Taket Iturri berbarik egin barik.

Bere bertso idatziak

Alfontso Irigoien ek 1959n. urtean. "Euskal-Kantak" zeritxon Euskaltzaindiaren argitalpen bat atera eban eta bertan Sollubepe k oso gitxi ida-tzikoetariko bertso-papel batzuk agertzen dira:

- Zenbat garean (Lau bertso zortziko nagusian).
- Mesedeetako Amari (Larrauri ko Zaindari). 4 bertso zortziko nagusian.
- Balentin Berriotxoari (lau bertso zortziko nagusian).

Ziur jakin ez arren, ba-leiteke garai aretako beste euskal aldizkari batzutan bertso paperak idatzi izatea, baiña ez dot ezer aurkitu.

Omenaldia

1976n. urtean omenaldi bat egin eutson Mungia ko erriak.

Oneik izan ziran etorritako bertsolariak: Jon Lopategi, Intxaurraga, Azpillaga, Muniategi, Lazkao-Txiki. Narbaiza, Aretio, Deunoro Sardui, Balendin Enbeita, Arregi ta Mañukorta. Berak abestu eban azken-agurra.

Andik gitxira joan jakun Juan Ormaetxe TAKET edo SOLLUBEPE.

Ona emen berak idatzitako bertso batzuk:

Izenburua: Zenbat garean.(Zortziko nagusian)

I
Zenbat garean gabiltzanak
edozein bide artuta.
Pekatura juten garanak
geuk argi-argi ikusita.
Gomutau barik zelan daukagun
Juez bat goian jarrita.
Egunen baten ak esango dau
zein ibil dan erratuta.

B
Itxartu gaiten, anai maiteok,
bideak zuzenduteko.
Alderdi danak ementxe doguz
nai dan era artzeko.
Gomutau gaiten ez gareana
ona etorri betiko.
Negargarizko azken-ordua
geugana eldu orduko.

III
Emakumeak emen dabilta
moda barriak artuta.
Orrexek ditu demoniñuak
bere sarcan lotuta.
Motor-ganean edonorantza
edozein lagun artuta.
Arpegi-beatz gorriak baiña
arimea baltzituta.

IV
Karidatea il jaku baiña
bizirik dago bentangata.
Eta fedea arturik dago
milloa ta erdi mundantza.
Emengoari emongo dautse
buelta edonorantza.
Baiña goikoa aldatutea
izango dabe gatxa.

SOLLUBEPE

Eskerrak emoten

Eskerrak emon-bearrean nago Jabi Etxegarai ri. 1976n. urtean Taket en ome-nez egindako bertso-saioaren barria emon daustalako.

Patxi Mujika'ri be bai, garai aretan bera ibilli zalako magnetofonia eskuan ebal, erririk erri bertsoz bertso bilduten. Ori dala-ta, berak emon daust 1964n. urtean ospatutako Bizkai ko Bertsolari-Txapelketaren barria.

Alfontso Irigoien eri, sasoi aretan gai jartzaille ibilli zalako eta berari esker inprimatu ziralako Taket en bertso-papelak. "Euskal-Kantak" zeritxon liburuskata baten.

Taket ezagutu eben Mungia ko erritar guztiak, beronen barriak emon dauste-zelako.

Eta azkenez, Juan Ormaetxe ren familiari. Eskerrak asko.

ABERTZALETASUNA GAUR

Abertzaletasuna zer dan

Guk uste gendun abertzaletasuna aberri baten bizi diranak euren lurrari eta lur gainean bizi diranai dauksen maitasuna zala.

Eta maitasun ori barru-barruan geunkan, poza emoten euskun, aberrikideai maitasuna izaten geuntsen, eta aberritik kanpora joaten giñanean, geure nortasuna ez gendun galtzen, besteai geure izakerea zabal agertzen geuntsen.

Ortik ez etorren gutzat arazo larririk.

Gaurko arriskua

Gaurko askorentzat gauza ori ez dago ain argi. Aber-tzaletasuna gauza txarra dala, gudak sortzen dauzala, erriak banandu egiten dauzala ta olakoak entzuten dira.

Abertzalea ei zan Franco España osoa aberri bat zala, berea, uste ebalako eta antzera Lenin edo De Gaulle.

Bakean bizi nai ba'da, aberria ta abertzaletasuna aiztu egin bear ei dira.

Olakorik!

Gu lengo lekuan

Baiña gu lengo lekuan gagoz.

Euskaldun jaió gara, Euskalerrria ta euskaldunak maite doguz eta euren izkuntza, oiturak, ekanduak, izaera... zaintzen eta indartzen alegintzen gara.

Ba-dakigu ori arlo zabala dana, ba-dakigu olako gauza asko galtzen doazena, eta olako jazoerak poza emoten dautse gure arerioai, guri ostera samintasuna. Gauza orreik giza-balioak dira eta giza-balioak galtzen diranean, gizona bera da galtzen dana.

Ez ñoren aurka

Gu ez goaz ñoren aurka baiña itzi begiskue españatarak eta frantziarrak, euskaldun guztiak, iparraldekoak eta egoaldekoak, naparrak barru dirala, aberri bat izaten eta geuk nai ba'dogu laterri bat sortzen.

Ez begie uste izan euren aurka goazenik. Geurea zain-tzen dogu, eta orixe da bakerako bide bakarra.

Frantziarrak Frantzian eta españarrak Españan eta euskaldunak Euskalerrrian. Bakoitza bere lekuan eta bakean.

Laterri izateko eskubidea

Letonia, Lituania Estonia naiz beste edozein aberrik eskubidea ei dauko laterri izateko. Eta oraintsu lortu be egin dabe batzuk. Izan be ori da Laterri-arteko eskubi-deen arteko bat.

Eta eskubide ori zergaitik ez daukagu euskaldunak?

Ala ez ete gara gu aberri bat? Ori be ukatu egingo ote dauskue?

Aberria gara

Gure eskubide au eskuratzean zer-galdu daukenak laster esango leukee eta esaten dabe gu ez garala aberria.

Baiña guk ba-daukagu geure izkuntza, geure kondaira, geure ekonomia, geure oiturak eta ekanduak, geure izake-ra, geure endea, geure erlejiñoa, gaurkoa ta antxiñakoa... Zer geiago bear ete dogu?

Eta ez begiskue esan gure artean ba-dagozela euskaldunak ez diran asko. Euskalerrria etorri ezkerro, emengo aberriari eragozpenik ipiñi barik lagundu egin bear dautsoe, geuk kanpora goazenean egin bear dogun lez. Eta emen betiko geratzeko ustean etorri badira bertokotu be bai, emengo izkuntza eta beste berezitasunak artuta.

Abertzale ta bakezale

Euskaldunok izan gaitzean abertzaleak eta abertzaletasunagaz batera baita Europa-zaletasuna be indardu dagi-gun, mundu-zaletasuna be bai.

Gorrotu barik, banakuntza barik, guda barik... Bakezale eta gogorkeriaren arerio, baiña ñnoz geurea ukatu barik.

Auñamendiko Lorea Elebarrian Txomin Agirre'k ederto diñoan lez, goikoak goian bekoak beian, bakoitza bere lekuan.

Abertzaletasuna ez da politika, politika guztien eta alderdi guztien gainetik dagoan gauzea da eta euskaldun guztiak Euskalerrria ta onen eskubideak maitatu bear dabez.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK

EUSKALDUNAK AMERIKAN

Amerikara joan nintzan
zentimorik gabe
andik etorri nintzan....

Euskalduna ibiltaria izan danik ia inork ez dau ukatzen. Derrigorrak eraginda geinetan.

Berton bizimodua aurrera ataratzeko erarik ez dauanean aurkitu, atzerrirako bidea artu bear izan dau.

Istorian zear, azkenengo urteetara artean, berton industria jarri arte esan geinke, ez zan arritzekoa emendik kanpora joan bearra, nekazal inguruetan nebarrebarik zarrena danaz jabetzen zalako, eta etorkizunak obeagorik ez ebalako eskeintzen, erritik kanporako bidea artzea zan normalena, uriburura edo Amerika aurkitu ondoren "amerikak egitera".

Azkenengo kasu onetan gauzak ondo joan ezkeru poltsikoak diruz beterik "indiano" eginda errira biur-tzen ziren. Alan eta guztiz ere, asko izan ziran bertan gelditu zirenak, onantzako bidea egin ezinik edo egin gura barik.

Euskaldunak Amerikan onerako zein txarrerako (danatarikoa egon da) itzitako ildo nabaria da.

Adibideak aurkitzea ez da bat ere gatza: Lope de Agirre, Simon Bolibar, Fray Juan de Zumarraga, Juan de Garai... batzuk baino ez aitatzearren.

Baina beste batzuk ere izan dira, ez ain ezagunak, baina euren arrastoa itzi dabenak: Zenbat eleiz gizon, mixiolari, arma-gizon...! Bitxikeri lez, Kalifornian "urrearen sukarra" biztu zanean, oñatiar seme bi izan ziran ango "Palo largo" arrantxoa sortu ebenak. Itzela izan ei zan, inguruetakoa aundi-ena, gaur eguneko Gipuzkoa lurraldearen erdia baino aundiagoa.

Artzaintzarako eben arrantxoa, eta ainbat euskal-dun langileen artean, bai egoaldekoak, zein Bidaso-antik gorakoak.

Artzain euskaldunak ospetsuak izan dira (eta dira) inguru aretan, baina egiari leku egitearren onako au ere esan bear da: Ango artzain euskaldunak aipatzen doguzanean Bizkaikoak eta Gipuzkoakoak eukiten doguz kontutan, baina ez litzateke bidezkoa izango Iparraldeko iru lurraldeetakoak aztutea, onetari-koak ere asko izan ziran an eta.

Bizkaitarren eta gipuzkoarren etxetik joan bearra argi dago, baina zer esan iparraldekoetaz? Zuberoa-ko ainbat erri-abesti dagoz orretaz.

Euskal Errian industria sortu ostean, beste denpo-raldi baten ere izan da Ameriketarako joera.

Oraingoan ere derrigorrak eraginda, bizitza gor-detzeko. 1936garreneko gerratearen ondoren sortu zan egoeraz nabil.

Bidea zabalik egoan, eta ango jendeak beso-zaba-lik artu eban geinetan emengoa.

Mexiko Euzkadiko iragan-txartela edo "pasapor-tea" onartzerainoko eldu zan.

Orduko asko lenbailen itzultzeko asmoz joan an, gure "Patxikok" askorik ez ebanaren iraungo itxaro-penez, baiña... aide batetik Jaungoikoak (edo dea-bruak) geiegi luzatu ebazan beronen indarrak eta beste aldetik lurralde aretan ere dirua ez etorren goi-tik bera.

Bizimodua ateratzea ez zan bat ere erreza.

Orain urte batzuk ezagutu neban orretariko bat. Venezuelara eldu zanean, bere asmoa bakarra itzul-tzeko txartela erosteko beste diru aurrezteia izan zan. Baina dirua lortu orduko, praka barriak erosi bear, gero alkondarea izan zan, gero bizi zan pisuko ala-gorea ordaindu bearra... eta. Orrela ia berrogei urte igaro ziran arik eta segurtasun apur bategaz berriz etortzeko aukera aurkitu.

Segurtasuna diñot, berrogei urteotan ainbat gauza gertatu zirelako: lana, emaztea, semeak..., eta zein itzuli maletak utsik eta sendiarentzat etorkizunen bat bilatu barik?

Itxaron egin bear diru apur bat lortu arte, emen gero zeozertxo ipini-az, aurrera joateko.

Liburu-denda bat izan zan beronen kasuan.

Ezin dot aztu ia irurogeitamar urte-gaz, zein gazte eukan bere abertzaletasuna eta euskera ikasteko gogo-
goga.

Dana dala gauza erreza da gure arrastoak aurki-tzea Amerikan. Abizenetan konturatzea baino ez daukagu. Or izan zan Etxebarria bat Mexikoko agin-

taria, Bolibar Ego Amerikako askatzailea, Aita Vitoria indioen aide lan ikaragarria egindakoa, Juan de Garai Buenos Aires uria sortu ebana... Amaitu ezineko zerrenda bat osotuko genduke orrela jarraitu ezker.

Batzuk euskaldunak jaiotzaz eta besteak jatorriz.

Kirolarien artean gaur ere ez da gatxa abizen euskaldunen bat aurkitzea, zein ostikolari taldeetan zein pelotarien artean Bitxikeri modura Estatu Batuetako saski baloira jolasten dauan Agirre, narruz Afrikako biztanle asko baino baltzagoa.

Aspaldion badirudi ibilbidea alderantziz egiten dala, etorleak dirala nagusi. Dana dala emendik arantz ere badoaz, or lekuko ainbat mixiolari, ez bearrez, baina bai borondatez joanak.

Batzuk itzultzen dira, baina beste batzuk antxe geratzen dira betirako, euren "indio maiteen" (orrela deitzen deutse) artean.

Baina beste "mixiolari" bat ere aipatu bear dot. Osagilea izatez, ostikolaria izana, eta azkenengo denporetan entzutetsua. Errialde aretan Jaungoiko barria biurtu da. Asmatuko zenduanez, Xabier Azkargorta'ri buruz nabil.

Bolibiak inoiz lortu ez dauana ostikolaritza edo futboleant, oraingoan euskaldun onen bidez lortu dau: Txapelketa Nagusiaren azken txanpan sartzea.

Estatu Batuetan 1994-n jolastuko dan txapelketarako bidai txartela eskuratu dau.

Aurretik ere, inork lenago ez dauana egin Boliabiako taldeak lortu dau: Txapelketarako sailkatze partiduetan Brasileko taldea menperatu.

Asieran inork ez eban emoten txakur txiki bat ere talde onen alde, eta Xabierrek berak be baltzak eta bi ikusi ebazan errialde aretara eldu zanean.

Baina denpora gitxiren barruan eriotz meatxueta-tik Jaungoiko izatera igaro zan. Futbol taldea ere, ezezagun bat izatetik lenengoetariko bat izatera eldu da, batez ere kontutan badaukagu bidean Argentina bezelako talde gogorak geratu direla.

Ez da, beraz, txantxetako gizon onek lortu dauana. Bataren batek, golak jokalaria sartzen dabezela esan arren, argi dago Azkargortak zerrikusirik izan dauala lorpen onetan.

Berriro ere asi bearko ete dogu euskaldunak "amerikak egiten"? Ain urrun joan bear ete dogu gure trebetasunak arakusteko? Araino joan bear euskaldunak ulertu gaiezen, gure euskaltasuna, gure balioa ulertu daien?

Kontuz! Alderantzizkoa ere gertatu leiteke eta! Amerikarrak etorri bearko ete dira "palabra de vasco" esaldiaren esangurea azaltzen, guk ulertu dai-gun?

ENRIKE ITXASALDE

IPUIN-SARIKETA (1993)

Eusketazaleak Alkarteak 1993n. urterako antolatu dauan Ipuin-Sariketarako Epai-Maiak artu dauzan erabagiak kontuan dirala, sari oneik banatzen dira:

- 1.º Saria: 40.000 pezeta: Beotibar ipuiñari. Idazlea: Iñaki Goikoetxea.
- 2n. Saria: 30.000 pezeta: Enara ipuiñari. Idazlea: Bergaretxe'tar Jon Joseba.
- 3n. Saria: 30.000 pezeta: Pago Mari ipuiñari. Idazlea: Legarreta'tar Asier.
- 4n. Saria: 20.000 pezeta. Gernika ipuiñari. Idazlea: Arrinda'tar Anes.

ZORIONAK!

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ



**Eusko Jaurlaritzaren
Laguntzaz.**

Kultura Saila

BEOTIBAR (1.º SARIA)

Milla urte igarota, ura bere bidean.
Beotibar'ko zelaian anaiak burrukan.
Akelarre'ko landan sorgiñak dantzan.

Sapatu gaua da...
Euskalerra'ko sorgiñak,
laiño guztien azpitik, sasi guztien ganetik,
egaz, ijiji! eta ajaja!
Zugarramurdi'ko arpera doaz.

Batzarra asi da...
Aker Baltza, sorginen erdian zutunik,
adar oker, bizar muker,
trumoi lango abots lodiaz, asi da esaten:

"Sorgin jaun-andreok:
Ongi etorriak, danok Akelarre'ko batzar onetara...
Erne belarriak eta entzun ondo!
Eginbear andi bat daukat gaur zuoi emoteko...
Sakabanatu zaitzeze arin Euskalerra'ko lau mugetara.
Atera aizeak euren gordelekuetatik,
jo trumoiak, biztu tximistak,
alkar amorratu zero-lurrak,
ez inon eta inori bakean itxi.
Eta zu, Bekaitz, sorgin-andra nagusi ori,
zoaz Naparroa'ko agintari Morentain jaunarengana,
eta egiak guzurraikin nasturik,
gipuzkoarren aurka, aren burua egizu zoratu,
begiak itsutu, biotza amorratu, asarreak biztu.

Saguzar egoaz jantzita,
irribarre gaiztoa ezpanetan,
egaz, illargiaren argitan,
ba-doa Bekaitz sorgin andra gaizkillea,
sasi guztien ganetik, laiño guztien azpitik,
lo dagoan Naparroa'ko Morentain jaunarengana,
eta zapo itxurak arturik,
aren oe-buruko azpian ezkutatzen da,
eta, klik-klok!, zapo zikin nazkagarriak,
belarrira diñotso:

"Lo zagoz, Naparroa'ko jaun andi ori?
Gipuzkoarrak ez dagoz, bada lo...
Azpikeriaz Gorriti'ko gazteluaz dira jabetu,
baserriak erre eta kizkaldu,
beiak eta ardiak lapurtu,
dana ondatu, apurtu eta txikitu...
Eta lotan zu?

Negu gorrian, mendi ganetan,
trumoi orroaka asten danean,
laiño lodiak euria zaparradan,
goien-beian asten dira botaten,
soloak, baserriak, abereak eta gizakiak ondatzen...
Alan naparrak Lekunberri'tik aurrera datoz,
ezpata eta lantzak eskuetan,
gorrotoa biotzetan, odola bero-bero zanetan,
gipuzkoarrei merezi daben ordaina emoteko asmotan...
Iñogaz eta ezegaz erruki barik, dana ondatu dabe,
baserriei sua emon, eta Berastegi'ko erria erre...
Eta or doaz aurrera, Tolosa erretzera...

Beotibar'ko zelaian giputzak itxaroten,
napar gudamutilliei aurrera bideak ixten.
Larre'ko Oñaz dabe nagusi,
zortzireun armagizonen buruzagi.

Asi da burruka...
Naparrak eta gipuzkoarrak alkarren aurka,
gorroto bizian,
txakur amorratuen antzean, otso gosetuen legean,
ezpataka, lantzaka, aginka, ostikoka,
alkarri erasoten, zauritzen, anaiak anaia ilten...

Eta zergatik?
Iñok ez daki...
Aker Baltzak ba-daki.

Burruka bitartean,
Beotibar'ko pago adarretan,
bela baltzak millaka,
egoei pozik eraginez, kua kua! kantaka

Sorginak dira
zelaiko burrukalariei buruak berotzen,
asarreari su emoten,
euren kantu zikiñekaz, gorrotoak irakiten.

Beotibar zelaia,
euskal anaien odolaz gorritua,
betiko madarikatua...
Ez bedi zure lurrean geiago lorarik erne,
sasiz eta arantzaz bedi betiko bete,
Euskalerrriak dirauan arte.

Nora zoaz, gipuzkoarren buruzagi,
Larre ko Oñaz jauna?
Nora zoaz arro, garaipen irrintziak agoan,
Tolosa bidean?

Burruka irabazi dozula, uste dozu?
Zure izen ona eta omena, bai, betiko galdu.

Kain, Kain,
non da zuk il dozun anaia?
Poztu da Zugarramurdi'ko Akerra.
Euskalerrri'ko amak negarra.

Milla irureun eta ogeita bat urteko
irailak emeretzi,
euskaldunentzat egun negargarri, lotsagarri.
Betiko aztua bedi.

Illargiak, illen argi errukitsuak,
estaldu ditu bere magalpe ixilean ildakoen gorpuak,
zelaian sakabanatuak...
Zenbat dira?
Zer ardura?
Bat bakarra litzateke naiko,
beti negar egiteko...

Beotibar'en gaurko gauaz sorgiñak batzarra.
Zelai erdian Akerra.
Jaun Baltzaren inguruan sorgiñak,
txistu-dabolin soiñuan,
ujujuka!, bira-biraka, zoratu artean dantzan.
Dantza amaitu ondoren,
sorgiñak banan-banan,
Aker Baltzari buztanpean mosu emoten...

Sorgiñak pozik. Euskalerrriak negar.
Noz arte, euskaldunok, Aker Baltzaren menpean bizi
bear?
Anaiak anaia ilten alkar?

Euskalerrriko seme-alabok:
Beotibar'tik igarotean,
begiak itxi, suurrak estaldu,
zelai orri ustel kiratsa dario.

IÑAKI GOIKOETXEA



EGUTEGIA

Aurten be **EUSKERAZALEAK ALKAR-TEA**'k eguneroko orritxua eskiñiko dautzun Egutegia argitaratu dau, Bilbao Bizkaia Aurrezki-Kutxa'ren laguntzaz.

Urte Barrirako oparia izan bekizue doan emoten dogun egutegi au.

Eskatu egizu urren daukazun **BBK**'ren etxean edo Euskerazaleak Alkartearen etxean (Colon de Larreategi 14, 2.^a, eskoia).

ZORIONAK!!!

Len, mendiak illun; orain, artalde zuriakaz irripar zuri-tan jagozak, egunez, mendi egalak.

Gabaz, txabola zarretan ardi-ama ta bildots umeak maitasun ez-titan gozorik.

Berez jatok bizitza barria, izkuntz legea aberastuten. Lengo lan ezaupideei jakitun barria ezarten jeutzen.

Artxoen jaiotzak lan barriak... bildotsa lepoan artuta jatok artzaiña arrats-beran mendi tontorretik ardi txabolara.

Gero esne barria, ugari, baldak artu alan, bizitz mueta barriak sortzen. A zuan langintza bizigarria.

Etxeko andre maratza ta senar-artzain trebea, alkarri lagunduz, gatzai gozoak egiten. Giro barri artan jabiltze-zak izkuntzaren atal barriak sortzen, euskeraren arloa zabaltzen.

Mendiak, arruak, ardiak, jaiotzak, bildotsak ederrak diran ezkeroz, euskera be, era berean, edertzen joian.

Eiztari usaiña galdu barik, artzain giroa artu juan.

Usaiña ta gozamina, biak eder, ta gure berbetearen izakerea arranoaren antzera, egaz mintzatzen ta edertzen. Eta era orretan sortua dok euskera, biotz onetako lorea...

Edertze-lana

Baiña, alan da guzti be, arrituta naiagok.

Gizon areek, nundik nora, jarri eikioezan oiñarri ain jakintsuak, gaur, gizon jakitunak ikaritzen dituan euzko izkuntz berezi oneri?

Nire izatearen edertasuna, aditzaren jakituria ta gañerako joskera ta edergallu guztiak, zertatik eta nundik, dazozen jakin nai al dok...?

Begiak zabaldu, arnasa ondo artu ta euzko izadi ta gizardira begiratu.

Gure arkaitz gallur, mendi ta arrunak sendoak eta argiz orniduak dituk, eguzkiaren inguruan darabilen jira-biran.

Egunez eta gabaz, argiz, euriz, aizez ta edurrez, izadiaren bizia egiten ta indartzen joiak.

Egunetik egunera, euskaldun-ibarrak luzatzen, zabal-tzen ta indarbarritzen joiezak.

Lurraren giroa geroago ta ederrago.

Gure jente eiztaria, ortxe, asi zuan ederraren aurrean izkuntza sortzen.

Zenbat eta arkaitz sendo, zelai orlegi, lur mamin ta itxas ederragoak ikusi, berbea be bikaiña-goa zuan, itz joskera beña-goa, euskeraren mardultasuna askoz osotuago.

Izadiaren izakerak astindu ta arrotzen jitian lurralde ontako giza semien erraiak.

Buruko argitasuna sortu ta biotzeko maitasuna suspertzeko duin zituana, aurrean, eukezan lur edergalluak.

Era ortan, mendiko abere gizenak lez, guri, jaio zuan Euskera: izadiak eta onak itz egiten jeutzen; arriak adime-na bizkortu ta basoetako iturriak irudimena gardentzen.

"Liraiña nok"

Euskelerri osora begira naiagok. Ain dok ederra... Ezin esan beste gauz bikain jaukazat aurrean... Baiña, lenngo, nor nazan esan bear deuat. Nire izen ta abizena dituk BIZKAI EUZKO IZKUNTZA.

Pozez beterik esan bear deuat, adiskide, lur onen altzo zabalean ikusi, ezagutu ta gozartu ditudan bitxi ta edertasun guztien artean ederrenetarikoa berbeta, izkuntza dok.

Neure burua goratzera ez najoiek, ori ez dok ba egokia ta gitxiago, gizontasunezkoa.

Egia ta ona gauz berbera izatera eltzen dituk. Bizkaiko lurralde ontan be, gizon, meatz, solo, zelai, mendi, itxaso, danak alkartu zituana, eta euren artean berbeta bat sortu juen: Bizkaiko izkuntz mamintsua.

Ni, beti, atsegiñez bizi izan nok lurralde onetan. Emengo jentearen jeiñua, biotza, irriparrea ez dituk izan edozelakoak. Ondo artua izan nok gizaldien gizaldietan millak urteen buruan.

Noz jaio nintzan jakin nai al dok? Euskaldunak sortu ziranean.

Euzkotarrak eta ni bat gaituk, mendiak legez aundi, itxasoa lez zabal, soloen erara mamintsu, basoa lez zabal, soloen erara giarratsu, baratzen irudira loratsu.

Nire sormenaren jakin-miña oso kezkatua dok jakint-suen artean. Lan ta lan jabiltzazak ene jaiotzaren agiri papera billatu nairik, ta iñundik iñora, gaur arte ezin aurkitu.

Ain nok zarra, baiña ez tximurra, ain nok antxiñakoa, baiña neure semeak lez ederra... ain nok urtetsua, baiña neure alabak lez liraiña, ain nok garbia... neure kutunen antzera edurra lakua: zuri, argi ta urre.

Nire bizi-lekua

Nunbaiten bizi bear eta, Aitorren lurraldeetan oiña tinkatu genduan aneika urteak direla: Ezin esan beste.

Mendietan, baso bazterretan, izpazterretan, arkaitz-zulo ta lezetan igaroten genduazan gure bizitzako urteak.

Gure sorrerako lenen aldia, olan, izan zuan, mendi, zelai ta arkaitzetakoa, baiña, benetan, giarratsua.

Orain lez mizkatuak ez; ezta ain arroak be.

Gure jauregia lur berbera zuan, ta gure egoitza ta logelak lur barruetako berezko leza ondo apainduak.

Euskerak, ain eder dalarik eta ain jakintsu, mendi-bi-tarte orreetan izan ioan bere sorrera maitagarria.

Jente aren barrua eguzkitako arkaitza legez zuan argia, ta erreketako ur saltari ta dizdilariaren antzera garbia. Euren barruan eioten zuan bakearen urun zuria.

PAULIN

EUSKERA EUSKALDUNEN IZKUNTZA

Lurra eta abereak

Emen, jagok, benetan, gure izkuntzaren abia, jakituria, maitasuna ta bizia. Ardien bizitza galdu barik, argibide barriak sortu zituan gure arbasoen barruetan.

Beti, oldozten; beti, asmetan ta aurrerapideak sortzen. Euskaldunaren lei au berezkoa izan dok giza-aro guztietan gaur artean. Emen, zabaldu bear joan gure berbete mamintsuak. Aldi onetan, geroago ta lan geiago artzen jok bere gain euskaldunak.

Lurraren sasiak argituz, adimena argitzen joiak; lurrari ale gorriak emon-erazoz, adimenari arnari oparoak sortu eragiten jeutsezak. Gizona asi zuan lurra landuten Bibliaren esanera.

Abere barriak ta euren bizitza ez zuan edozelakoa.

Len, mendietan ebiltzenak, orain, aro barrian, lurrak lantzen gizon lugiñen aginduz.

Emen, mundu barri bat askoz zabal ta jakintsuagoa agertzen dok.

Lurrak eta abereak, danak, gizonaren esana egingo juek bizitz zabalagoaren sorrera ta eginbidean.

Berba barria eta eskakera barriak

Baserri lana artzaigoa baiño askoz korapillotsuagoa agertzen dok.

Lurraren almenak, giroa, indarrak ez dituk bertanberakoak; egiz, kontuan artzeakoak baiño.

Lugiña, arduratsu, ibili zuan basetxe, sendi ta lagun arte txikiagoko bizitza orren sorkeran.

Millaak eta millaak urteetan iraungo eban bizitza sortzea zuan. Gaur be, gure biziaren oiñarri dok, aldi aretan asmau eben etxe, sendi bizitza.

Etxeko bizitza gozo ta alkar laguntzailleak arazo barriak, ugari, ekarri jitian gizartera.

Aurrerapidea ezin esan alakoa.

Buruko min sendoak sendi batzarrera ta lagun artera ekarri zituenak... Lagunak be, itzez, berbaz erantzun bear jeutzen lan gorabera ta ainbesteko bizitz giroari.

Guztiori jakitun geiago eskatzen jeuan: Berba barriak, esakerak, agertzeko moduak...

Bizkai'ko izkuntza

Euskera edertzen, liraintzen ta mardultzen joian Euz-

kadi osoan; ta era berean, Bizkaiko izkuntza jaio, azi, ta mamintzen zuan Bizkaitar semien irudimen ta argi zabalak agintzen eutsen eran.

Bizkai-lur onen semeak, beti ikusi jituat, apal, berbete on, jakintsu ta aberatsa sortzean ta bitxirik ederrena sortu ondoren. Ori-gaitik bear ba da, erriak, geien, darabilen izkuntza Bizkaiera dok.

Beste alde batetik, ostera, gizon apala baztertua ta zapaldua dala, ez al dok ikusten? Gizartean... Gizadian, beti, izan dok aundikeri-zaletasuna... naita otska, zarataka ta arrantzaz ibili, goratu egin nai dala esaten. Gero, ondoren, zoritxarrez, zapaldu egiten dan bizitza apala ta egizaletasunezkoa.

Nire sorleak eta jagoleak euzko basetxeak izan dituk millak urteetan, ta aurrerantzean be, euran izango dozak.

Bizi-naia

Bizkai-izkuntz, nire izatearen jeiñua, mendi, zelai, ibar, arru, arizti ta arkaitzetakoa dok.

Bizkaiak edergallu oneik bere altzoan jaukazak. Ta onez gaiñera, edertasun guzti ori artu, mamurtu ta euzko gizadiari pentsabide ta maitasunak, erarik onenean, agertzeko duin izan diran eta gaur, diran idazlan, bertsolari ta olerkariak bere-bereak jitung.

Norbere bizia iñor-gaitik emoten dauanak, dana emoten jok.

Ni, eskoletako pentsabideekaz ta aundikeriekaz it nai ba-nozue, ama etsi ezinik, negarrez, ikusiko nozue, ta jaio nintzan Bizkai'ko lurrean baserriarren buru, biotz, agoe-tan ta eleizako aldaretan, ezeren lotsa barik, erregiña izango nok.

Artzain-aroan

Geroz, ondoren, aro barria jetorran.

Eiztari giroak ateak zabaldu jeutsazan artzai bizi-bideari.

Lagun-arterako lege ohea zuan. Arrika ta makillaka txori ta pizti-ondoren ibiltea baiño, artzai kantari izatea ez al dok erosoago, alaiago ta bikaiñago...?

Alaitasunak ta bizitza egokiagoak izkuntza be bildots narruz jantsi juan. Euskera, aurrera, joian obetzen.

Geroago ta pentsamentu sakonagoak jabiltzezak saltari eguzki printzapean.

URRESTARAZU'TAR ANDONI (UMANDI)



"Andoni Urrestarazu izan da euskerak arabar eza-gutu dauan euskaldun barrien bizkondearen aita pontekoa. Beragandik asita, asko dira, Umandi'ren gramatikari esker, euskaldundu diranak eta geroago gure ikasleak izan diranak. Euskalgintzan bizi guztian eta musutruk ibilli dan arabar zintzo oneri agur eta oore"

Kepa Mendia
(Bizkaieratuta)

Illetea

Azillaren 21'ean, igandez, 1993n. urtean il jakun Gasteiz'en Andoni Urrestarazu Landazabal "Umandi", 91 urtekoa zala.

Araba ber-euskalduntzeko ekintzaren aurrelarien artean lenengoetarikoa eta bear ba'da garrantzitsuena dogu Umandi. Beronegaz batera aitatu bear doguz Manuel eta Martin anai Lekuona'tarrak, Jakakortajarena'tar Txomin eta beste batzuk.

Bere gorpua azillaren 22'an, astelenez, izan zan illobiratu Araia'ko illerrian, Andra Maria'ren eleizatxuaren ondoan. Erri orretan jaioa zan, izan be, 1902n. urteko uztaillaren 16'an.

Illetatik urteeran dantzari-talde batek eskiñi eutson omenaldia Araia'ko eleiz-aurrean, eta illerrian aureskua egin eben bere omenez.

Senideak, auzokideak eta adiskideak ugari izan ziran eleizkizun aretan, baita Araia'ko eta beste erri batzutako udalkideak eta errigintza naiz jakintza-arloan diarduen beste asko, esaterako Juan San Martin arartekoa, Endrike Knorr (au Euskaltzaindiaren orde), EA'ren buru dan Garaikotxea'tar Karlos eta Gasteiz'ko alkate dan Jose Anjel Cuerda. Au ildakoaren ikasle izan zan. Katalunya'tik Salvador Espriu, baita Sanchez Carrion.

Gramatika

Bere gurasoak euskaldunak izan ez arren, gazte-gaztetan konturatu zan Umandi, bere sustraiak euskaldunenak zirala, Araia bere errian euskerea galdua izan arren.

1919n. urtean asi zan euskerea ikasten, "Euskaltzale Bazkuna"ren ikasbideari jarraituz. Sabindarren bidea jarraitzen eban erakunde onek.

Gero Madrid'en osotu eban ikasketa ori Juan Ruiz de la Escalera Maidagan'egaz eta Donostia'n, Alzaga'tar Toribio ta Agirre'tar M.' Dolores'egaz.

1942'an, guda-ostean, Laredo'ko espetxean egin eban egotaldia eta gero euskerea irakasten eban Gasteiz'ko bere etxean, Azkue, Altube, Eleizalde, Arrigarai eta beste batzuk irakasbide ebazala.

Irakasketa orretan idatzi ebazan lenengo oarrak eta orreitatik atera eban Paris'en erbesteratuta egoala, 1955'ean, bere lenengo gramatika. Koldo Mitxelena'k aztertua eta Jon Etxaide laguntzaille ebala.

Orduan artu eban Umandi ez-izena. Araia bere jaiotza-erriaren ondoan dagoan Umandia aitxaren gomutapenez.

Ez-izena erabilteko beste zio bat be ba-eukan, beste euskaldun askoren antzera: Bere idaz-lanak dirala-ta poli-ziak bere osetik ez ibiltea.

1951n. urtean lantegietako grebak zirala-ta, baitu egin

eben eta gero erbestera bidea artu bear izan eban: Hueska'n eta Iruña'n izan eban bizilekua.

Euskera irakasteagaitik ez eban iñoz dirurik eskatu edo eskuratu.

Lan zabala ta aundia

Itzi dauskuzan idaz-lanak asko dira:

– Gramatika bi. Bata irutan argitaratu da erderaz eta gero berak osotu eban bizkaierazko adizkiakaz eta bestea euskeraz argitaratu zan eta Gazteiz'en egin zan aurkezpena, 1989n. urtean.

– "Gentza bearrean" elebarria.

– Araba'ren kondairari buruz argitalpenak.

– Euskalerrari buruz argitalpenak.

– Liburuska asko.

– Aldizkarietan idazlanak. Gaiak: Eritxiak, ezibideak, abertzaletasuna, erlejiñoa, kondaira, gaztedia ta abar...

– Umeai euskera irakasteko ikasbide batzuk.

– "Euskal iztegi gogoa". Lan arrigarri au argitaratu barik dago eta euskal-burubideen iztegi bat da. Amaitu antzean geratu da. 82 urtekoa zala asi eban Umandi'k lan ikaragarri au, gazte baten adoreagaz. Lana Gaztelera "Casares" iztegiaren bidetik doa eta amar urtean 300.000 txartel idatzi dauz eskuz. 600 inguru geratu jakoz egiteko eta oneik Gaspar Erkizia'k idatziko dauz.

Miren Terese bere arrebeak eta Andoni Perez Cuadrado'k 100.000 txartel inguru idatzi dabez idazkiñez.

Eritxiz ondo batua

Ara zer diñon Andoni'ren idaz-lanai buruz arabarra eta katedratiku izana dan Egea'tar Jesus'ek: Umandi'ren idaz-lanen berezitasunak dirala izkuntza garbia, aberatsa, erakarlea ta zentzunduna, kristiñautasunez eta erri-giroko

abertzaletasunez betea. Garbia da, "erderakada"rik onar-tzen ez daualako, erbesteko barbarik erabilten ez daualako, euskerearen beraren barrutik itz barriak ateraten dauzalako. Ondo ekizan jakin be, itzak osotzearen eta ateratearen arauak. Aberatsa, euskalki guztietako itzak erabilten dauzalako. Zentzunduna, Euskaltzaindiak 1918'an birlatzen eban batu-osotuaren iztegia darabilrelako bere idazkietan.

Andoni Urrestarazu Euskerazaintza Erri-Akademia'ren kideko osoa zan, baita Kardaberaz deritxon euskerearen aldeko erakundekoa be.

Ez etorren batera Euskaltzaindiak euskera batua egiteko artu dauzan arau barriakaz eta orregaitik, biotz onez eta maitekiro ez eban onartu oorezko euskaltzain izateko eskintza eta oraintsuago Euskaltzaindiak eskiñi eutson omenaldia.

Bere esker ona agertu ondoren, ez eban onartu Lakua'n dan "Umandi" ikastolaren etxe barria erabilten asteko jaira egin eutsoen deia, eta izena bera aldatzeko eskaria be egin eban.

Ostera, orain iru urte dirala bere jaiotza-errian "seme bikain" izendatzeko eskintza onartu egin eban, baita Gazteiz uriko urrezko domiñea be. AU 1984'an emon eutson Gazteiz Uriak.

Gasteiz'ko Udalak argitaratzen dauan Aldizkari Barri-Emoilleanen bigarren ekiñaldian diran 24'tik 38 zenbakietan idaz-lanak argitaratu ebazan.

EUSKALDUN FEDEDUN



Idazkolatik: Idaz-lan au eta gaiñean datorren marrazki-argazkia "Gaceta Municipal de Vitoria-Gasteiz", 1993'ko abenduaren 4'ko zenbakitik artuak dira. Idaz-lana Olazar'tar Martin'ek euskeratu dau.

IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratzeko erea. Etixerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEAren izena ipiñi ta 1.500 pezeta dirala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colon de Larreategi, 14, 2.º, eskoia. 48001 BILBAO.

EUSKALDUNEN ODOLA



A rrjnda'tar Ant's'ek odoleko RH'ren arawo argitzeko adibideak erabilten dauz.

AURKEZPENA

Sarri askotan entzungo zenduen, urrean, Rh odol-ezaugarria ta euskaldunen arteko zer-ikusia.

Izan be, arazo oneri buruz asko mintzatu ta idatzia da.

Augaitik ba, egokitizat dogu benetan, Arrinda'tar Anes'ek lako euskal edesti ta edesti-aurreko alorretan zenbatu-eziñeko lanak idatzi dauzanak, aipatutako gaiatzaz berba egin dagiskula.

Beste alorretan be, asko idatzi ta idazten jarraitzen dau Anes'ek, eta "Zer" gure aldizkarian, bere idazlan ugari ta atsegiñak irakurriko zenduezan, illero edo ia illero idazten dau-ta.

Entzun egiozuez, beraz, gaurko bere esatekoak, oso jakin-garriak izango diralakoan. Asi begi bere itzaldia Arrinda'tar Anes Jaunak.

Zubiri'tar Iñakik

BERBALDIA

Odol-motak

Giza-odola ez da berdiña mundu osoan; batetik bestera alderak daude. Aldera oiek zerki berezi batzuetatik sortzen dira. Zerki auek "aglutinogenos" esaten dira erderaz eta ematiak alkar erazteko aalmena dute.

Lendabizi aurkitu zirenak bi letra auekin izendatu ziran: A eta B. Bi letra oietatik lau odol-mota atera dituzte: O, A, B eta A+B.

Gaxo bateri odola sartu bear zaionean odol-sail auek go-goan eduki bear.

Orrelako zerkirik ez duen odola, O, da odol garbia eta beste gizakiei emateko da odolik egokiena: Danentzako balio du.

Artzeko da txarrena, odol garbia, O, artu bear duelako.

A eta B motak ez zaizkio ondo etorriko. A odol-motak, A eta O artu lezazke. A eta B duenek, mota guztiak artu lezazkete. Odola eman eta artzeko garrantzi aundiko asmaketa izan zan au.

Zertarako

Zerki auek A eta B, gurasotik seme-alabengana doaz Mendel'ek asmatu zuen legeen neurrian: Seme-alabek dituzten A eta B, gurasoengandik artuta dituzte.

Eta on gauza baliosua da zenbait alditan auzitegitan erabiltzen diran gatazketan argia egiteko; esate baterako, seme-alaba norena dan jakiteko.

Zerki edo elemento auek ez daude bakarrik ematietan; badaude baita ere, gorputzak ixurtzen dituen beste ixurkin guztietan ere: txistu, pixa, lerre, zorna, malko eta abarretan.

Au, ixurkiñetan egotea, ez da gertatzen, ordea, giza-izaki danetan, lautik irutan baizik: eunetik irurogeita amabostetan, alegia.

Nolakoa euskaldunen odola

Nolakoa da, euskaldunen artean, odol-sail auen zabal-gunea?

Erdiak, %50, edo geixego, utsak dira, O, eta ez dute onelakorik ezer. Eunetik berrogeita bostek, %45, A dute odolean. Gañantzekoek B dute odolean A'rekin naastuta edo bakarrik.

Europa'ko lurraldeetan Ekialdera goazen neurrian B zerkia geigotzen doa.

Asia'ko oriek guztiak dute B zerkia; India'ko zenbait errietan eunetik berrogeik dute. Andik onera gutxiagotzen dator; Frantzia, Portugal eta Espania'n, euneko lautik amarrera, dute B zerkia.

Orregaitik edo zera esaten da, B ori Europa'ko Ekialdekoa dala, Orientekoa, eta A zerkia Sartaldekoa, Ozidentekoa.

Rh zerkia

1940'garren urtean beste zerki berezi bat aurkitu zuten odolean, Rh zerkia.

Onek ere emati edo goronbillo gorriak alkarerazten ditu eta desegintzen. Ori dala-ta sortu liteke ama eta bere sabelean daraman aurraren artean, burruka bizi bat.

Au gertatzen da, semeak aitaren bidetik izan eta amak Rh'rik ez duenean. Orduan amak sortzen du Rh aurkako zer bat semearen ematiak apurtu eta desegiteko, semea eriotzara eramanez, baldin Rh gabeko odol berri bat sartzen ez ba'zaio.

Egun badaude txertu bereziak amari emateko.

Etcheberri osagillea

Arazo onek eraginda asi zan Miguel Angel Etcheverry me-

diku argentinarra euskaldunen odoletan Rn au arakutzen, milla bederatzireun eta berrogeta bostean (1945).

Ondoren bereziak atera zitun: Argentina'ko euskaldunen artean eunetik ogeita amar baño geiago zirela Rh gabeak.

Beste batzuek ere egin zituzten orrelako azterketak eta, gutxi gora-beera, azterketen emaitzak berdiñak izan ziran Zuberoa'n ez ba'da. An, Zuberoa'n, eunetik berrogeita bi aurkitu zituzten Rh gabeak (%'tik 42).

Euskaldunen antxiña

Beti izan da kezkarri Euskaldunen askaziaren sortzea. Nundik sortu ote zan euskaldun jendea?

Kezka orrek eduki ditu urduri gure arteko, eta gure arteko ez diran, jakintsu asko: Nundik etorri ote dira?

Ori izan da joandan egunkiko jakintsu askoren galdera. Nundik etorri ote ziran euskaldunak?

Ori erabakitzeko ez zeukaten gauza bat besterik: Erri orren izkuntza, mintzoa, berbeta. Eta, orduan berbeta orreri eldu zioten.

Bazekiten Euskera mintzo berezia zala eta ez zuela bere inguruan senitartekorik. Bakarra zala isla baten antzera. Ori ala izanik, berari eldu zioten.

Euskerea ez zan indoeuropeotarrek sortua, aurrekoa baizik. Eta, on egia zan.

Bitxikeriak

Gauza bitxiak ere esan zituzten: Adan'ek Paradisuan euskeraz egiten zuela, alegia.

Orain pane ere egiten degu; baño, orain eun urte ez zan ain parregarria.

Orain Biblia obeto irakurtzen ikasi degu eta bertan izketamota asmo daudela eta ez dirala gauza guztiak itzez-itx artu bear.

Idazle oien bizi-unean uste zuten Jesus'engandik Adan'era bitarte orretan ez zeudela 4.000 urte baizik. Eta ori egi utsa zala zeritoen.

Euskerea berbeta guztien aurrekoa ba'zan, orduan, nai-ta-nai-ez, Adan'ek euskeraz egin bearko zuen.

Jakingarri barriak

Baña, eun urtetik onera, D. Joxe Miel Barandiaran'en garaian, beste jakingani asko ezagutu ditu Euskalerrriak.

Joan dan eunkiaren azkenean, Sautuola Kantabria'ko medikuak, marrazki miragarri batzuek topa zitun Altamira zuloan. Baña, ez zion iñork sinistu berak egin ez zuanik marrazki aiek. Gezurtizat artu zuten eta parregarri utzi zuten munduaren aurrean.

Amar urte beranduagoa, ordea, Les Comberelles deritzan beste Frantzia'ko arkaitz-zuloan beste marrazki batzuek topa zituzten... Baña, ordurako, mingoitzez biotza beterik, Sautuola ilda zegoen.

Arrezkerok, Asturias'tik asi, Cantabria, Bizkaia, Gipuzkoa, Be-Nabarra, Pirenee-mendian zear eta andik gora Dordoñaraiño eun baño, amar milla urtetik gorako, koba-zulo geiago topa dituzte marrazki eta margoz beteak.

Inguru osoa kultura berekoa zan eta alde guzti oien ardatzean, erdi-erdi, Euskaldunak bizi gera.

Ezaugarriak

Marrazkirik ez duten koba geiago dago gure aurrekoen bizitza agertzen digutena. Lurrean utzitako janari-erreusak, arrizko eta ezurrezko lanabes eta tresneriak agertzen digute aien bizitzako zenbait aurpegi eta egoera.

Eunki onetan, lenago ezagutzen ez ziran, ia lareun trikuarri aurkitu dituzte; zenbait cromlech ere bai.

Adan'ek euskera egiten zuala esan zuanak ez zekien gauza auen berririk. Arkeologiak arrezkerok aurrerapen aundiak egin ditu gure artean eta egunero ari dira azterketak egiten eta berriak aurkitzen.

Beraz, ildakoen bide dan arkeologiak lagundu bear digu gure arbasoen asiera billatzen.

Auen laguntzarik gabe ebiltzen Euskera lagun zutela, ebiltzenak eta, Euskera utzetik gauza asko atera dituzte. Eta, liburu oiek ez dira jua dan eunkikoak bakarrik.

Liburuak

Emen daukat "Origen de los Vascos y su idioma" deritzan liburua.

Izen buru orren azpian onela seguitzen du: "De Iberia a Iberia la voz de los abolenos" Iber'erritik Iber'errira lengo aba'en abotsa". Volumen I.

Gabino de Seijo y de Zarrandicoechea da liburuaren egi-ilea. Bilbo'n aterea "Escuelas Graficas de la Santa Casa de Misericordia". Urtea 1952.

Au da lenengo liburua eta bigarrenik ez det nik ezagutzen baldin ba'da ere.

Izen-buruan agertzen du liburu onen egilleak bere asmoa onela esaten duanean: De Iberia a Iberia la voz de los abolenos Iber'erritik Iber'errira lengo aba'en abotsa. Iberia Iber'errira dala eta la voz de los abolenos, lengo aba'en abotsa, Euskera utsa.

Eta orrela jokutzen du gauza eta itz askoetan.

Liburuaren tesisa izango litzake auxe: Euskera Europa'ko sustractum da, bere azpiko solairua.

Geroztikoak dira indoeuropeotarren izkuntza guztiak; beraz, auen izkeretako sustraietan Euskera dabil, tarteka monozonoz jantzita eta aldakuntza ugariekin.

Izkuntzen nasteak

Eta ez zaio anazoirik falta: "porque cuando comenzo en el pais vasco a escribirse, hizose con la grafia latina impropia para insertar el vocabulario del euzkaro por cuanto que el latin carece de signos ortograficos para escribir fielmente el sonido del lenguaje eusk rico". (37 Orrialdean).

Ori aide batetik, eta bestetik itzak egon dira millaka urteetan naastuta beste era bateko berbetekin.

Erderari buruz gogoratzeakoa da batzuek esaten dutena, erdera, alegia, euskaldunek latina egitetik sortu dala.

Egia da Aro Erdiko Euskalerrian sortu zala eta euskaldunen agotik; ez da bada anitzeko euskal itzez beteta egotea eta erdaldun utsak direnak ere askotan euskaldun utsak izatea, guri ala ez iruditu arren.

Esate baterako, nik zuei galdera auxe egingo dizuet: Nola esaten da euskeraz zanahoria itza? Zaña oria, h ta guzti... batuzaleen pozgarrirako.

Laister galdetuko digute: i.Como se dice zulo en vasco?

EUSKAL-ASTEA

Eta gu euskaldunok ibilliko gera 'zulo' nola esaten dan asmatu eziñik.

Latiña ta euskera

Seijo idazleak latiña aztertzen du.

Esate baterako Ager itza aitatzten du, azalduz berba on euskerazko Ager(e)tik datorrela. Agerre euskeraz leku jasoa da, goi-aldetik dagon lurra eta latiñez Ager lur esan nai du.

Berdin jokatzten du Specus'ekin. Latiñezko Iztegiak dionez, egilleak berak aitatzten du, "Specus-us, (voz arcaica procedente del griego): Virgilio le da el significado de cueva, caverna, gruta; y Livio le asigna el subterráneo". Ondoren azaltzen digu Specus euskerazko Aizpeko dala. Aizpeko aitzaren babesean bizi dana esan nai du; aizpeko zuloetan.

Gaur egun Etxepeko esaten degun antzera... (270 orr.).

Berdin jokatzten du erderazko Seno itzakina.

Iztegiak latin Sensus itzetik datorrela esaten du eta ona zer dion latiñezkoak: "Sinus, us (etimologia incierta)=El seno, el pecho o regazo, sima, abismo, profundidad...".

Eta gure idazleak or sartzten du euskerazko Sen itza, ortik sortuko bait zan Sinus latiñezko itza. Sen'etik ateratzten du Sen-arra, Sen-du (engendrar), Senaldu (conocerse carnalmente), Sen min (dolores de parto), Sena egin (parir), Sen edo Señ (niño eta ortik sortzen da Sen-zaiña), Senide edo Senalde (pariente carnal)...

Itz orretatik sortzen ditu euskerak eta latiñiak berealdiko berba-zerrenda: Ziñu, Sinistu, egun senti, aitaren senakua, sentun bako... (322).

"El Sen se encuentra en el vientre —dio— en el periodo embrionario. Una cosa es el Sen y otra cosa es el vientre.

El vientre es el hueco o concavidad o parte interna en donde se encuentra encerrada una cosa y de Ai que se le designe con el nombre de seno al pecho porque en el se encuentra la leche que mama el niño o sen". Ala bazan, sartu dedilla kalabazan.

Aurrerago onela dia "En estas acepciones dadas a la raiz Sen originaria —e incomprendida por el romano que asi confiesa el Diccionario Etimologico latino citado— se observa que el romano trastocó el sentido, dándole al Sen o Semen el caracter de seno, es decir, de vientre o matriz, en el cual se robustecio o se crío el Sen o Sein". (322-3 orri.).

Eta orren antzera ari da liburuan gauza bitxiak esaten.

Eta nork daki orrela ez ziranik gertatu? Bear ba'da, ipuñen antzekoak izango dira bat baño geiago; ez, ordea, danak. Igali eder asko dago or ostroekin batera gordeta.

Eritzi okerra

Egiak ez diranak ere baditu tartean liburu onek. Etnografi eta etnologia ez omen du balio gure historia-aurrekoen sorrera erakusteko; berdin esaten du arkeologiari argi egiteko balio du; eta arkeologiak, gaur egun, berri asko ematen dizkigu gure arbasoei buruz: "La antropologia es por completo impotente para ahondar y resolver este misterio. La tierra ha consumido los huesos de infinitas generaciones" dio. (37 off).

"La lingüística es intil en un 90 por ciento. En minima parte es el unico elemento que nos queda para averiguar la antigüedad del pueblo vasco". (37 off.).

Aurrerago, 44 orrialdean, itzen etimologia edo esan naiari buruz kontuz ibiltzekoa dala dio. Bein bera eta bere lagun bat,

biok, Gastiburu'ko gañera joan, eta Alzola-Zakona baserrira eldu eta bertako etxeoandreaki auxe galdetu omen zioen:

—Aurreko mendi orrek zer izen dauko?

—Urke-mendi. Ezakeria da, or lapurrek urketutan zirala.

—Urkirik bai aldago mendi orretan?

—Baai... Ugari.

Ortik ateratzten du liburuaren egilleak, ez dirala berdin Urke-mendi eta Urke-mendi. Baña egilleak ez zekiena da Gastiburu gain orretan, illerri bat zegoela, arrezkerok arkitu dutena eta illerri ori indoeuropeena zala. Eta, izan liteke Urke-mendik ere bere arrazoibidea izatea. Lapurrek izan bait ziran indoeuropeoak eta zeltek Euskalerrian.

Zeltak, jentillak, mauruak

Zeltak beuren jatorria indoeuropeo errian daukate; gerora ezin ziran Zelta Erroma'k menperatu zituztenean. Rin ibaitik onuntz ziran zeltak eta aruntz, germanoak.

Gastiburu'tik bi milla metrora dago Marueleza, indoeuropeoen gaztelua. Maruen-leza izen orrek bere izkutukia gordezten du erriaren agoan. Erriak ez zekien or zer egon zanik, baña izkuntzak gorde du or egondako zer-edo-zeren berri. Orain agertu da or gaztelu (castro) bat Maruenleza izenakin.

Bada Ataun'en Jentil-baratz bat, geroago Oyartzun'en Mai-rubaratza biurtu dana.

Jentillak gure artean maiz Maim biurtu dira "transpozio"le-geak agintzen duen eran. Gure arteko Jentillak indoeuropeo edo zeltak ziran. Ipuiak dietenez Jentillek ekarri zuten gurera garia eta burni-lanak. Eta historian indoeuropeoek ekarri zituzten biak gurera.

Maru eta maim ori, Deba ibaiean, Mum da Elgoibar'en eta Mum-gain Aretxabaletan. Bi Mum oietan indoeuropeoen gazteluak topa dituzte. Indoeuropeo eta Zelta, biak batera erabiltzen dituzte izketaldi onetan.

Indoeuropeoak ziran lenengo; gerora, Erromak, zatitu zitun: Rin ibaietik onuntz ziran Zeltak eta aruntz Germanoak.

Erroma aurreko indoeuropeoak agertu ziran Euskalerrian Naparro eta Araba menperatuz milla ta berreun urte Jesus jaio aurretik.

Arkeolojiaren frutuak

Geroago, bosteun urte Jesus aurretik, Zeltek agertu ziran berriro eta auek egin zituzten Marueleza eta Gastibum.

Beraz, arkeologiak lagun egiten dio linguistika eta etnologiari.

Baña, zeltek ez ziran Maruelezan bakarrik izan; egon ziran baita ere Luno'n eta Berriaga'n. Flaviobriga'n zer esanik ez. Egi oiek arkeologiaren frutuak dira.

Antropologiari buruz zer esango degu? Odol-saillak eta Rh gaurko giza-semeenak dira; gaurko antropologia da.

Uskoak eta Etruskoak

Etruskoekin gertatu dana gertatu da Euskaldunekin ere.

Or zebiltzen idazle erromatar eta grekoek etruskoen berri billatu eziñik. Ez zekiten nungoak eta nundik etorriak ziran.

Batzuentzat ifar-aldetik etorritako indoeuropeoak ziran, Arno eta Tiber ibai artean geldituak, gaur Toscana deritzan lurraldeari. Orduan, ordea, Etruria zan.

Besteentzako, berri, ekialdetik etorriko erria zan. Etmri'ra etorrita gero dira Etruskoak.

Nik gauza bat agertu nai dizutet: Etruskoak Arno eta Tiber ibaien artean zeuden; Euskoak (Vascones), berriz, Iber eta Deva ibaien artean.

Baña, Deva zelta izena da; beraz, aurretik beste izen bat izango zuan. Zer izen? Deva ibaiak, azken bost kilometroak, Arno mendiaren oinetan egiten ditu, itxasorarte. Orduan, izena Arno bear zuen.

Ona Uaskonak (Baskunes da bere lenego izena, indoeuropeoek ipiña); ortik atera dira Uaskoak, uskoak Deva-Arno eta Iber-Ebro ibaien artean kokatuak...

Bizkaia

Deva (Arno) ibairarte zeudela Uaskonak esan det.

Zergaitik diot ori? Vascones itzatic sortzen da latinez Vasconice itza, Vascon'en erara esan nai duena eta ortik dator erderazko Vasconice. Vasconice'tik dator vasconizata eta ortik erderazko Vascongada.

Bizkaia ez da sekulan Provincia Vasconizata bat izan; Vasconen erara egiña, bere izketa desberdiña dalako.

Vasconizazioa Deva (Arno) ibaiko ertzean amaitzen da, arte egiten bait da euskeraz Vasconen erara.

Bizkaia ez da sekulan Provincia vascongada bat izan, Señorío de Bizkaia baizik eta bere izkera ez da sekulan vasconizata egon, orain Batuak egiten ez ba'du. Eta gu gaude emen ori gertatu ez dedin.

Arno ta Tiber

Etruskoek Arno eta Tiber ibaien tartean zeuden. Eta, nundik norakoa ote ziran gogoan izan barik, ortik asi ziran jakintsuek erri orren billa.

Baña erria ilda zegoen. Ez zeukaten inor bizirik. Ez zeukaten izkuntzarik. Zer zeukaten? Illerri bat, besterik ez. Eta ortik asi ziran.

Kargaz betetako gurdi baten aztunakin beera jo zuan lurra Etruria'ko une batean eta azpi orretan tonba batzuek topa. Illerri osoak.

Arkeologi etorri da historiari laguntzera eta berreun urte auetan ez du laguntza onek etenik izan: sekulakoak topa dituzte lur-azpi aietan.

Etruri orretan, Etruskoen aurretik eta ondoren, paludismoa besterik ez da izan. Baña, urrez asetutako lurralde orretan etruskoek amabi iri sortu zituzten, lurrean erretenak ireki-ta gari-soro eberatsak atera.

Burni-meatzak bazeuden eta burni-olak jaso ugariak; urrea ez zan palta bitxiak egiteko.

Erroma ta artikeria

Amabi uri eder, bakoitza bere askatasun osoan. Jesus jaio aurreko bosteun urtetik zazpireunera ikaragarrizko indarrak artu zitun Etruriak; bere kultura eraman zuen Grezi aldera...

Baña, an Tiber ibaiaren ertzean, zazpi muñotan, erri berri bat ari zan sortzen: Erroma. Etruskoak izan ziran Erroma'ren len-da-biziko erregeak.

Alaz ere, Erroma bakarra izan arren, etruskoen amabi uriak menperatu eta desengin zitun.

Bakoiza bere askatasunean, guztiak putzura. Etruskoen arrasto guztiak txikitu eta erre. Orra Erroma'ren egintza.

Aztikerietan nagusi ziran etruskotarrak eta aien aziak

iraun zuten Erroma'n. Oso aztikeri zaleak ziran erromatarrak, eta arazo ori beti etrusko apaizen eskuetan laga zuten.

Etrusko jatunak

Erromatar idazleen artean 'mala prensa' izan zuten etruskoek gaur egun gure artean lez.

Idaho'ko Idazkari nagusiak lengo egunean esan zuen beza-la, Ameriketako terroristak euskaldunak dira; baña, Indurain eta Olazabal, españolak.

Prensa gaiztoa izan arren, etruskoak oso erligiosoak ziran, kementsuak eta indar aundiko jendea.

Erroma'ko kirol guztietan etruskoak nagusi.

Jan eta edanetan ere gure antzeko. "Or daude –dio Lucilio idazle adar-jotzailleak– tripazai oiek, beti jaten, bere silborrak urdaiez, urdaiazpikoz, esparrago-puntaz, ganbaz eta esturionez bete-bete egin arte...".

Idazle guztiak batera datoz zera esatean, alegia, etruskoerne aiek koipez lertzen zeuden lodikote batzuek biurtu zirala.

Caton'ek aurpegira botatzen die egoera ori esanaz: Zer probetxu atera liteke Estatu batek orrelako langilleetik, eztarritik gerrirarte sabela besterik ez duten oietatik?

Gure antza

Misterioz betetako erri jakintsu, indartsu, enpresari, erligioso, izkuntza ezezagun baten jabe, aztizale, ildakoen serbitzari, jan-edanetan trebe... Ez dakit gure senitartekoak ziran ala ez; baña, gure antza ematen zuten.

Berriro daude etruskoek jakintzu guztien ezpañetan; erririk ez, ordea. Izkuntzarik ez, ordea.

Gu, oraindik, erri bat gera, eta, Batua sortu arren, izkuntza badaukagu.

Noiz arte? Gu bizi geran arte, bai beintzat. Etruskoen bidean jarri ote gaitu Batuak?

A zerkia eta Euskaldun Odola

Zera esanda daukagu, alegia, gu euskaldunok 0 edo Utsa odol-saillekoak gerala geienak. Ia erdiraño? %45, A saillekoak. A sail oneri Ipar-aldekoa esaten zaio Europa'n. Ia erdiak, ipar-aldeko mota odola degu euskaldunok. Nik egiten dedan galdera auxe da: Nundik sortu da A zerki ori?

Ruffignac deritzan leize-zuloan eun illedun mamuten irudiak daude. Badira rinozeronte illedunenak ere. Ruffignac Dordoña'n dago; Burdeos'en parean, Akitia izandako ipar-aldean. Andik asi eta Asturias'eraiño, guztiok giñan kultura berekoak. Akitaniako lurraldeetan renoa zebillen, Polo'ko izotza eta elurra gurera etorrita zeudelako. Europa osoak izotza zeukan txapel. An goian ez zegoen ezer, eskimalak ez badira.

Ondoren eguraldia bigundu zanean, eta izotzak ipar-aldera jo, orduan renoak eta mamutak gora jo zuten, eta euren okela jaten zuten eiztariek ere bai. Arrezkero erri berriak sortu ziran Europa biguñean.

Euskalerriko lurretan, tundraren ordez, belarrak eta basoak; reno eta mamutaren ordez, auntzak eta oreñiak... Egoera onetan sortutako erriek zabaldu ziran Europa'ko txoko guztietara.

Millaka urte batzuek pasata gero, Indoeuropeo izenekoa Ipar-aldeko erri oiek, berriro beruntz egin zuten, eguzkiaren billa. Ordurako beuren odola A zerkiarekin kutsututa izango zuten. Orain, beintzat, euren da; eta geurera etorri zan.

Bada Araba'n La Hoya izeneko, lur azpitik atera duten antiñako Indoeuropeoen errixa bat.

Laguardia'n dago eta 3.200 urte bada an dagoela.

Pirenee'ko Orreaga'tik sartu ziran Naparroa'n zear. Naparroa'tik Ebro ertze eta Sakana'tik Araba'ra. Bi lurraldetako gaiak artu zituzten. Ez ziran soldaduak, erri osoak baizik. Defenditzen errezak ziran gainetan kokatzen ziran, euren etxeak egiñez.

Bazuten ganadua, baita nekazaritza ere. Garia gure artera eurak ekarri zuten. Olagintzan trebeak ziran. Tupiki edo bronzetza eurak zabaldu zuten erri maillara.

Jakintsu-sail barria

Auek ez ziran Gipuzkoa eta Bizkaia'n sartu, ertze batzuetan ez ba'da, Araba eta Naparroako mugetan.

Baña, beranduago, euren senitarateko Zeltek agertu ziran. Izugarritzko sarraskia egin zuten La Hoya'n. Uste genduan auek ez zirala Gipuzkoa'n eta Bizkaia'n nagusitu. Uste uzte gertatu zaigu. Tolosa inguruan Aldaba'ko Intxur mendian eta Nabarniz'en, Marueleza muñoan, bi toki oietan bakarrik egon zirala uste zuten jakintsuek. Baña, egia ez da orrela izan; orain amar urte Luno'ko Kosmoagan topa dute beste kastro bat; eta aurrerago joanda, Berreagan bestea...

Asi besterik ez du egin lan orretan jakintsu sail berri batek.

Gipuzkoa'n berdin. Intxur'eko gaztelua zala bakarra uste genduan danok. Baña, urte gutxi dirala, Tolosa'tik beera, Andoain'go Buruntza mendian topa dute beste bat.

Geroago Murugain deritzan, Aretxabaleta eta Mondragoen aurrean dagoen mendian ere bai; baita, joandan urtean, Muru deritzan Elgoibar'ko mendi muturrean.

Askok geiago egongo dira, zeltek gure gallurretan bizi izan ziran-da. Gaztelu izeneko tontorretan egin oi zituzten beuren etxeak, arri-eliz inguratuak. Goietan lantzen zuten burnia, eta zabalgunetan, berriz, gariak erein eta ganaduak zaindu...

San Martin txiki

Geure etnologia-ipuietako Jentillak, eurak ziran. Eurori arrapatu zien San Martin Txikik garia.

Apostu egin zien zeñek saltorik aundiena egin gari-moltso baten aurrean. Bota aundiak eraman zitun San Martin Txikik eta gari erdira jausi. Oiñetakoetan garia ekarri zuen kristauerriera. Eraman egin zitun baña aiekin zer egin ez zekien. Jentil batek garraxi egin zion:

– Ba'lekie, egingo leukie: Ostro-eroitean erein eta ostro-irtetean jaso.

Beste egunen batean burniaren tenplea arrapatu zien: nola gozotasuna eman burniari, alegia.

Burnia eta garia indoeuropeoen eta zelden eskutik eldu ziran gure errira.

Jentil-iturri

Erromatarrek gurera etortzean, orduan galdu ziran zeltak: lurak jan zituen.

Zer gertatu zitzaizen tarte orretan gizaki aieri? Iñork gauza gabirik ez daki.

Euren gazteluak belardi eta baso bihurtu ziran berriro. Euskaldunen buruetan, berriz, mairu eta jentil bihurtu ziran.

Eurok egindako zazpi metro alturako arri-esiak bera jo eta sa-

siek ez tali zituzten. Zer gelditu zan jendearen gogoramenean? Maruen-leza bezelako izen batzuek, eta mairu eta jentillen ipuiak.

Gipuzkoako Intxur mendian, eroritako bosteun metroko erri-esiaren inguruan, mendabal-aldera, an dago iturri bat Jentil-iturri deritzana. Baña, orain berrogeita amar urte, Don Joxe Miel Barandiaran'ek a aztertu arte, iñork ez zekien zergaitik zeritzan Jentil-iturri.

Erromatarrek eta indoeuropeoak

Gauza orrela dirala, galdera au egiten det nik: Gure artean ain ugaria dan, (ia euskaldunen erdiak dute) A deritzan zerkia, nundik etorri da guregana, eurogandik ez ba'da? Mendietako elurrak urtuzten diran antzera, urtu ziran eurak ere gure artean.

Erromatarrek beuren gudariak bialdu zituzten guregana. Ez zan erromatar erria berbera etorri.

Soldaduekin batera etorri ziran merkatariak ere; baña, ez zan andik erririk etorri.

Indoeuropeoek, ordea, bai. Erri osoak agertu ziran, euren tresneri guziakin, geiago euren errira ez itzultzeko asmo osoakin.

Baztarrak ondo aztertu ondoren, eurentzako toki egokiak ikusten zituztenean, onez eta pakean, itzarmen edo itunen birtarte, ala burrukan eta indarrez, artzen zituzten. Leku oiek mendi-gaillurak izan oi ziran. Arri-esiz inguratzen zituzten eta barru orretan egin euren etxeoak.

Izkuntzaren sustraiak

Badakigu gurekin egon zirala. Bizkai eta Gipuzkoa'n iru-reunik bosteun urteetara; Araba eta Naparroa'n milla urte baiño geiago. Erromatarrek emendik agertu ziranean, orduan desegin eta urtu ziran euskaldunen artean.

A zerkia eurok zeukaten eta guri utzi ziguten.

Zalantzarik gabe. Emendik Europa ipar-aldera renoen ondoren joanak; an erri bihurtu, A zerkiaz kutsutu, eta, gero, millaka urte beranduago, andik onera berriro etorriak.... Eta, azkenik, gure artean galduak. Galdu ziran eta arkeologoak ez dakite ziur nola.

Emendik reno eta mamuten ondoren irten aurretik izkuntza berdin antzeko bat erabilliko zuten Pirenee mendietako jendeek. Urteak zear izkuntza berriak sortu zituzten Europa-goialdeko erri oiek; baña, lengo izkeraren arrasto guztiak ez zituzten galduko.

Nai-ta-naiez azpiko solairu orretan egon bear du asierako izkera arren sustraiak.

Garai aietako izkera, euskaldun mintzoa, guregan oraindik bizirik da. Indoeuropeoen izkerak euskeraren argitan aztertu bearko litzazke. Euskerak argirik emango luke, argi ori Batuak iltzaltzen ez ba'du.

Europako toki-izenak

Europar zearko geografi-izenak eta euskaldunak antzekoak dira. Lenago aitatu dituguz Etruskoak eta Euskoak: Arno eta Tiber, bi erreka oien tartean, daude etruskoek; Deva'ko Arno eta Ebro-Iber, ibaien artean, euskoek.

Seijo jaunak, bere liburuan, latíña izkuntza aztertzen du, eta, mapa batean, izenak dakarzki euskaldun leku izenen antzekoak.

Or daukagu Naparroa'n Azpiroz'peko aldaparen asieran, ai-

tzetik sortzen dan iturri berezi bat eta Araxes izen duen erreka-ri asiera ematen diona, Aralar mendiaren egalean.

Sanfermiñetako enzierrotik, bide orretatik Gipuzkoa'ra datozten geienak geldituko dira traguska bat egiten.

Or dituzu beste bi izen, Araxes eta Aralar. Armenia'n daukazuz Ararat mendia eta bere egalean Araxes erreka. Txiripazko gauza da? Alabearrez gertatzen diranak? Txiripa asko dago inguru aietan.

Seijo'k bere liburuan Europa'ko izen asko agertzen ditu euskaldun izenen kutsua dutenak.

Begira batzuek: Caspio itxasoaren eki-aldera agertzen dira Chelaya, Tartar, Baskires, Belaya, Bilbona, Urskos, Uzkoa, Uzbekos, Urianjaios, Uzt edo Urt; ifar-aldera, Baskuntzak; mendebaletik, berriz, Iberia, Araxes, Aratat, Ardibil. Turkia n, Tuskos, Turcos edo Urskos. Italia n, Tuscos edo Etruscos.

Andik etorriak?

Izen oiek badute beuren sorginkeria; baña, izen oietatik ezin asma lezake, eta esan, gu euskaldunok andik etorriak geranik. Izan litezke emendik ara joandako batzuek ipiñitako izenak; orixe egiaztatuko luke A zerkiak... Arazo au or dago illunpetan.

Gu, ordea, euskaldunok, Cro-Magnon leizeetik gatoz zuzenean.

Egi orreri aspalditik artu zion susmoa Don Joxe Miel Barandiaran'ek.

Andik ateratako askazi edo erria gera gu. Beste erri asko ere andik sortu eta egin dira; baña, Europa onetan ez da iñor asko, bizirik diraunik gu baño.

B eta Rh

Odoletako B zerkia Ekialdekoa dala esan degu lenago.

Gure artean B'rik ez dago, eunetik bat edo ez ba'da.

Euskalduna Ekialdetik (Orientetik) etorri izan ba'litz, guztiok izango genduan B ori gure odoletan; baña, ez daukagu.

Eta, zerki ori ez ba'degu, ez gera andik etorri.

Geiengoen odola O da, Utsa da; ez degu ez A eta ez B. Garbitasun ori Ekialdera goazen neurrian galtzen da Europa'n zear. Zenbat eta Ekialderago, ainbat eta B geiengo odolean... Euskalduna emengoa da; eta, emen, Cro-Magnon'go gizona bizi zan.

Rh zerkiarekin ere berdin-berdin gertatzen zaigu: Zuberora'tik alderago Europa osoan zear, eta ugariako Rh odolean.

Zuberotarrek dira gutxien eman dutenak: eunetik berrogeita bi Rh gabeak dira. Beste euskaldunek ogeita amar inguru dira Rh gabeak. Frantzi eta Hispanian, eunetik amabost.

Ekialdekoak, guztiak dute Rh ori. Zuberotarrak eunetik berrogeita bi (%42); angoak ez diran euskaldunak eunetik ogeita amar (% 30); frantziar eta espainiarrak eunetik amabost (%15); Ekialdekoak eunetik zero (%0). Ori ala izanik, ondorioa errez ateratzen da eta uxe da: Gu euskaldunok ez gerala Ekialdetik etorri; ala izan ba'litz, guztiok giñazke Rh'dunak. Eta, ni beintzat, ez naiz Rh'duna.

Cro-Magnon'en ondorengoak

Euskaldun askazia Cro-Magnon'en ondorengo bat dala, hi-

potesis bezala, Don Joxe Miel Barandiaran'ek atera zuan Deba'ko Urtiaga leize-zulotik.

Milla bederatzireun eta ogeita amaseigarren urtean (1936), Mola eta Franco'k guda sortu zutean, Barandiaran'dar Joxe Miel Urtiaga'ko kobea arazkazen ari zan.

Lan aretak atera zitun euskaldunen bost kaska-ezur. Buruzur aietik sortu zitzaion zalantza bat, hipotesis bat: Euskaldunok Cro-Magnon zulotik atereak ote giñan.

Ote ori or zegoen aidean eta or utzi zuen Don Joxe Miel'ek.

Orain lau urte, ordea, milla bederatzireun eta larogeita zortzian, Jesus Altuna eta Concepcion de La Rua, Barandiaran'en ikasle jakintsuek, esan zuten, beuroen maixuak ateratako ondorena ez zegoela batere garbi. Kaska-ezurren argibideak ez zuela gure askazia Cro-Magnon'eko zuloan sorrera zuela adierazteko baliorik.

Baña, bien bitartean, Jean Marc Brissaud bere "Las Civilizaciones Prehistoricas" idaz-lanean, auxe esaten du: 1970'garren urtearen inguruan, Pariseko Jean Bernard eta Toulouse'ko Jacques Ruffi jakintsuek, euskaldunen odol eta kulturetik, Barandiaran'ek kaska-ezurretik atera zuen hipotesis ura berbera egiztatu dute: Cro-Magnon'eko gizona Pirenee-mendietan kokaturik bizi dala oraindino.

Pirenee eta Akitania'n bizi izan dan askazia diardu oraindik Euskal-errian.

Cro-Magnon nondik etorria?

Lenago galdera auxe zan: Euskaldunak nundik datoz?

Eta, Don Joxe Miel'ek zionez, orain galdera ori aurrerago eraman bear da, Cro-Magnon nundik etorri zan galdetuz.

Euskaldun askazia Cro-Magnon orren berezikeri bat da; baña, Cro-Magnon bera nungoa da?

Badaude munduan zear Cro-Magnon'eko gizakiaren erreus eta gorpuzki batzuek. Cro-Magnon'en ederra eta benetako jakinduria Europa'n agertu zan; bereiziki Europa orren egoaldeko sartaldean, Dordona'tik Asturias'era.

Tarte orretan dago gizaki orren Franko-cantabrica deritzan kultura. Kultura orren ardatzean dago gaurko Euskalerrria, eta or egon da ordutik onera etenik gabe.

Cro-Magnon'en aurretik Neanderthaleko gizona zan European bi milla bat lagun. Ura ere gizaki jakintsua, arri landu eta suaren jabe zana.

Galdu zan eta ez daki iñork iñun bizi danik, Elurretako Veti izakia ez ba'da.

Galdu zan Neanderthal'eko gizona aurrerago Dinosaurioak galdu ziran bezala eta, arein ondoren, agertu zan Cro-Magnon'eko beste gizaki jakintsu-jakintsua.

Bere goi-maillak gure artean arrapatu zitun Madalein'go marrazki eta margo-kultura garaian. Cro-Magnon'go leizeak 30.000 urte ditu eta 18 Madelein'ek.

Bide luze orretan arrapatu zitun kulturako goi-maillak eta erri berriek sortzera eman.

Gaurko etnia

Madalein garaian asi zan gaur eguneko euskal etnia sortzen. Ori erakusten digu odolak, etnoloiak eta arkeologiak ere bai. Izkerak eta mintzairak zer esanik ez. Baita orrek ere.

Ikusi ditugu lekuen lekuko itzak eta berbak. Angoak, emengoen antzekoak.

Berdin gertatzen da latinezko berba jator askoetan Sejo jaunak idazten denez.

EUSKAL-ASTEAK

Euskereak beregan du euskaldunen antxiñatasuna guk ikusi ez arren.

Or egon dira Aitz edo Ar daramaten itzak; baña, iñor ez da konturatu, arkeologiak leizeetan arriz landutako lanabes eta langaiak topa dituen arte.

Aizkora, aiztoa, aiturra, artasixak, zulakaitza millaka urteetan erabili ditu euskaldunek agoan, arrizkoak izan zirala jakin bank.

Arkeologiak kobetatik arrizko lanabesak atera dituanean, orduan konturatu gera, ori euskerean bertan zegoela.

Euskerari entzun izan bagiñun, oiek arkeologiak ilunpeetatik argira atera aurretik jakingo genduen gure aurrekoen lanabesak arrizkoak izan zirala.

Terranoba eta ternua

Neroneri gertatutakoa esango dizuet.

Itxas-kabruk zertzuk diran jakingo dezute. Arrain oiek aitzetan arrapatzen dira eta margoa dute gorri-illuna. Ba dira, orde, beste kabra batzuek argiago eta politagoak direnak eta aitzetatik itxas-barrurago bizi direnak.

Nere gaztaroan tierno-kabruk deitzen zieten Lekeitio'n. Nere aita itxas-gizona zan eta berrogeita amar joan-aldi egin zitun Terranova'ra. Etxetik zebillen batean, joan giñan biok Donostia'ko arraindegira bixigu baten billa eta orrelako kabra batzuen aurrean onela esan nion:

— Zer politik diran kabra auk.

— Ugari daude oiek Terranova'n —erantzun zidan.

—Entzun nuena belarri batetik sartu eta bestetik urten. Urteak bitartean paatu ziran pillo bat.

Lekuona "zaarrakin" euskera ikasten ari giñan Kardaberaztar batzuek eta esan zigun euskaldunek itz luzeak mozteko oitura zutela betidanik eta orrela latinezko torcularetik tolarre sortu zuela, eta Terranova'tik, Ternua.

Orduan argitu zitzaidan burua: Jakiña, pentsatu nuen, Lekeitio'ko Tierno-kabruk, Terranova'ko kabruk dituk. Nere aitak eta Lekuonak, bien artean egin zidaten argia.

Gure Euskalerrri'ko kostalde guzitik eten-gabe ibilli ziran barkutik Terranova bidean XVI eta XVII'garren eunkietan. Lekeitio'tik ere bai. Baña, aizkeneko iru eunkietan ez ziran andik agertu eta aztu zitzaizen Terranova zanik ere. Baña, euskerak ez zuen aztu eta or zeukan itza gordeta Terranova'tik aide eginda gero ere, irureun urtez. Zenbat orrelako gauza eta dagozen euskeraren erraetan!

Aberetsua

Aberatsa dirudunai esaten diogu, baña orain 5.000 urte abere asko zituna zan aberatsa; orain, berriz, aberastasuna ez da neurtzen abereekin, beste era batera baizik.

Baña, orduko itza or dago gure artean bizirik aurrekoen historiaren lekuko ta testigu.

Euskerea gure historiaren gordelekua da. Histori ori prehistoriatik dator; Europa'ko azpiko solairutik dator zuzen-zuzenean.

Oraingo Batuak eta Euskeraren Normalizazioak arriskuan ipintzen ez ba'ditu, iraungo dute itz oiek beste 5.000 urteetan.

Geuk bear degu argia buruan euskeran gordeta dagoen historia ori illunpeetatik ateratzeko. Lana ez dago mugaturik; darenentzako lana ta biarra or dago zai.

Rh odolean ta EUSKALDUNAK

Zugatz, landara, arri ta burdin lur-sagar, arto, garia, lorez jantzi da udabarria, pozez dago arimia; era ontako bitxi ederrak jantzi dabe lur bizia, danak eder ta bearrezkoak ondu dabe izadia.

Giza semea ederrago da adimen ta maitasunez, batzuk zuriak, besteak baltzak lurra lantzeko ardurez; zurrak direnak, aurrera, doaz, beste batzuk, atzez-atzez, danen artean osotzen dabe gizadia zorionez.

Baltz ta zuriak odoldun dira, ez da bardiña danetan, Euskalerrriak berea dauka ezaugarri ederretan; gure jendeak bestek ez legez "Erre Atxe ezezkorretan, kementsu dauka, beti, dardaraz, euzkoen zain sendoetan.

PAULIN

Arrinda'tar Anes RH-ri buruz mintzatu zan, atzo, Euskal Astean

BILBAO. Euskerazaleak Alkarteak gertatu dauan Euskal-Astearen barruan, bigarren itzaldia izan zan atzo eta Arrinda'tar Anes'eri entzun geuntson.

Gaia aspaldion gure artean erabilia izan da: RH euskaldunen odolean.

Oiñarri lez Jakakortajarena'tar Txomin'ek idatzi eban liburua artu eban izlariak eta liburu orretatik azaldu ebazan Arjentina'n gai orreri buruz egin ziran azterketa sakonak.

Gure artean olako edo antzeko billaketak Jose Luis Goti osagi-llak egin dauz. Ondorenak antzekoak izan dira.

Jakingarria da benetan euskaldunen odolaren berezitasuna. Ez gure odola ohea dalako, baiña bai jakin-zaleak or gauza berezi bat aurkitzen dabelako. Gauzak diran lez jakitea beti da gauza ona eta or dagoz ukatu-eziñak diran jakingarri batzuk.

Anes jaunak artu eban irakasbidea be ederra izan zan, entzule guztiak gaia errez-errez ulertzeko lakoa.

Azkenean beti lez alkar-izketa ta bertsoak izan ziran.

Gaur, Oñatibia'tar Manu'k egingo dausku berba eta bere gaia Arana Goiri'tar Sabin izango da.

Barikuan, azkena

Igaro dan astelenean asi ziran Euskal Astearen berbaldiak, Olazar'tar Martin'ek eskeiñi eban mintzaldiagaz. Atzo, Arrinda'tar Anes'eri gertatu jakon bere txanda.

Gaur, gorago esan dogun egez, Oñatibia'tar Manu'rena entzuteko aukera dago.

Biar, azillak 18, izlaria Arrien'tar Gregorio izango da, eta Gernika'ko Batzarrak eta Bizkai'ko Jauna gaiaren inguruan moldatuko dau bere berbaldia.

Euskal Asteari amaiera emoteko, Augustin Zubikarai ondarrutarra etorriko da Bilbo alderantz. Idazle jator eta ezagun onek euskaldunen abizenak gaiaren ardatzean garatuko dau bere berbaldia.

Berbaldi oneik Alameda de Rekalde kalean Eskolapioak dauken ikastetxean izaten dira arratsaldeko zortziretan. Sarrera, doan.

(DEIA'N AGERTUA)
EUSKERAZALEAK

GIZARTE AUZIA (II)

Aurrekontua

Izen-buru au ber-beraz aldizkari onetan 180 zenbakian, nik bialdutako idazlan bat argitaratu zan.

Orduan, 1994 gn. urterako aurrekontua onartu bear dala-ta, zuzenketak aurkezteko epea zabalik egoan, ondoren oizko diran eztabaidak Lege-Batzarrean asteko.

Bitartean Madrid'eko Jaurlaritzak eta EAJ'k ainbat batzar eta itzaldi antolatu ebezan, alkarrezko itun bat erabagitzeko asmoz, baiña dana alperrik.

Kanariatarren laguntza (lendik CiU'arena lortuta egoan) eskuratu eban ezker, euskotarrena ain premiñazkoa ez zala Lege-Batzarrean autarkien goiengo eukitzeko, ta astia emon baiño ez egiten zala konturaturik, EAJ'k, oi danez, aurkako alderdi bezela jokatzera erabagi eban.

Araudi-eskubideak

Jakiña da eusko alderdiaren asmoa, laterriko Jaurlaritzari sendotu ta krisi-aldian laguntzea zala; baiña onezaz gaiñera Gernika'ko Araudiaren ondiño eskuz-aldatu barik dagozan 54 eskubide bereganatzea be ba zan bere asmoen artean.

Keskatsu

Dana dala PSOE'k Lege-Batzarrean daukazan autarkiak, orain arte eskuratu dauzan laguntzak gogoan arturik, naikoa ozta-ozta diran ezker, EAJ'ari keskatsu ta begi-onez begiratzen dau-tso, atea zabalik lagata, arremanak, bear ba'da, jardun daitezcan.

Ain ugari batzar eta itzaldi gizarte-itzaumen bat lortzeko egin eta dana alperrik dala ikusirik, Madrid'eko agintariak epe bat jarri eban: "Azillaren 30'erako ez ba'gara batera etortzen, Jaurlaritza berak iragarritako neurri ta baldintzak Lege-Batzarra bialduko dauzala", esanez.

Langille ta ugazabak

Langille ta ugazabaen ordezkariak ba-ekien nolakoak ziran agintarien asmoak, batez be irabazteen-itzaumen eta lan-arremanen araubideak barrizteari buruz; bearrezkoak eta onuragarriak dirala sarritan adierazi eben-eta.

Langillei kaleratzeko zioak, taldeko kaleratzeak, langilleen aldakortasuna; ikasketa, aritzeko eta aldizkako itun edo kontra-tuak dira, besteak beste, oraingoz iragarrita izan diran gaiak.

Olako erabagiak ez jakezan atsegin izan ez ugazaba ezta langillei ta, danok naigabeturik, iru talde alkarren arteko egoera kaltegarri bat sortu zan.

Iñolako iritz-kidetasuna barik epea amaitu zanez, abenduaren 28 gn. egunean Lege-Batzarrean lenengo zatiak onartu ziran.

CCOO eta UGT sindikatuak, aitatu doguzan neurri ekono-

mikoen aurkako agerkunde-ibillaldi bat antolatu eben; baiña ELA eta LAB eusko sindikatuak ez ziran batera etorri ta ez eben eskua sartu.

Lan-izte orokorra

Azillaren 25 gn. egunean, laterriko uriburu ta uri nagusietan, sekulako agerkunde-ibillaldiak urten ziran; ta, naizta oraingoz eguna aukeratu ez, len aitatu doguzan eusko sindikatuagaz kirri-mirri batzuk egozala-ta, oneik argitutakoan, orain bai, danok batera, lan-uzte orokorra urtarrillaren 27 gn. egunerako epetu eben.

Ukatu-eziñezkoa da gaurko gizarte-auziaren egoera, batez be españar laterrian, kezkarria dala. Jaurlaritza alegindu da gizarte-sail guztien baimena lortu. nairik bere asmoak edo neurriak bakean eta gogoz onartu egiezan, baiña dana alperrik; ba-kotxa bere bidetik ibilliaz, ezelako urreratzerik ez da izan.

Ugazaga-ordezkarrien iritziz, gure errien diran neurrien ba-besko diran lan-arremanaren araubideak iñun ez ei-dago; eta ori eragozpen aundienetarikoa dala lan-leku barriak sort-erazte-ko. Langilleak, barriz, eurak luzaren luze ain nekezka lortu da-bezan eskubide ta onurak, su ta gar eutsi egiten dabez.

Aldazkuntzak

Argi dago gai ontan, eta bestetan be, Europa'ko Ekonomi Alkartea'kin kide-ta bertan leiatu al izateko, aldakuntza naba-riak egin bear doguzala, bai lan-arremanen araubideetan, bai teknikan, trebetasunean eta abar.

Egia da ardurazko krisis aundi baten garala; baiña onezaz gai-ñera, aspaldi ontan gure bizi-maillaren gaiñetik ibiltzeak be sen-doki bultzatu gaitu larri-une onetara eltzeko. Esku artean erabilli izango dogun dirutza, bear dan baiño geiago eralgi ta bonbonke-rian murgilduta ibilli ei-gara, gure ondasuna parrastatuaz.

Banesto

Ezbearek ez litzakez iñoiz sortu bear baiña, zoritxarrez, ba-tzuetan ba-dirudi kalte geien egin leikien unean agertzen dirala. Bat-batean eta ez-ustean, Banesto deritxon diru-etxea porrot aundi baten estu-aldian dagola-ta, bere Arduradun-Batzordea baztertu ta beste barri bat aukeratu bear izan da, azterketa sakon bat egin dagian, galtzea zenbateraiño igon dan ezagutzeko.

Aitatutako Banesto, laterriko diru-etxe aundienetariko bat izanik, bere porrotak finantzar-kidego guztietan latz-ikara kalte-garri bat sort-erazi dau.

Giro keskatsu ta illun onetan eta lan-uzte orokor bat egun batzuk barrurako iragarrita dala, eldu jaku aurtengo azken eguna. Beraz, urte-barriak zer ekarriko-ete dauzkun zain gera-tzen gara.

EUSKERAZALEAK

Colon de Larreategi, 14 - 2.ª dcha.
48001 BILBAO



A

Betidanik.

BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa

Itzau begiak une batez eta
begiratu zeure inguruari.
Eraikiñak, kaleak, aurtzaroan jolasten
zendueneko lekuak, ikastegia... Ainbat
eta ainbat gauza ez dira leengoak, ez da?
Garaiak aldatu egin dira. Ezin ezetz esan.
Aiekin batera, zuk oraindik atsegin
dozuzan gauza asko be desagertu egin dira.
Urbiltasuna, begikotasuna,
zuzeneko artu-emona... Orain egiozu so
antziñako sukursal orren argazkiari.
Eta konparatu BBK'ren egungo edozein
bulego ta sukursalekin.
Ez dira ain ezbaridiñak.
Azkenean, garrantzitsuenak
bere orretan diraelako.
Gauza batzuk oiñarrikoak dira eta ori
ondo dakigu BBK'kook.
Garaletan zear aldatu egin gara. Jakiña.
Baiña leengo berberak gara.
Zuri laguntzeko. Eta zure alegiñaz
eta geurez onurak itzultzeko.